

ATV 11.315

ZABALA-ARANA'TAR JOSEBA

MIREN-BIOTZ-SEMEA

EUSKERAZKO

ZENBAKERA

«REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS» EN

22'G. URT. XIX IDAZT. 4'G. ZENB.

ARGITALDUA

DONOSTIA'N

ALDUNDIA-REN IRARKOLAN

1929



N. - 28601
R. 16472

ATV 11.315

ZABALA-ARANA'TAÑ JOSEBA

MIREN-BIOTZ-SEMEA

IRATKE
Libreria Anticuario
PAMPLONA

AC-5

EUSKERA ZKO

ZENBAKERA

«REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS»'EN

22'G. URT. XIX IDAZT. 4'G. ZENB.

ARGITALDUA

DONOSTIA'N

ALDUNDIA-REN IRARKOLAN

1929



EUSKERAZKO ZENBAKERA

G A Y A

- I.—Zenbakera-azalpena
- II.—Idazlien usteak
- III.—Uste espena

I

Zenbakera-azalpena

1. Zenbakera, zenbaki edo kopuru guziak itz eta mafa gutxiren bidez, itzez ta idatziz, agertzeko era baizik besterik ez da: alegia, zenbatzeko era.

2. Askotako zenbakerak sortu izan ditu gizonak: bostekoa, seikoa, amafekoa, amabikoa, ogeikoa, t. a. Australi ta Tasmani'ko efi batzuek bikoa ere erabiltzen omen dute. Colombia'ko betoyafak, oñafitzat esku bateko beatzak arturikan, bostekoa sortu zuten, eta ogei adirazitzeko *lau esku* esaten dute; baita guaranitafak, ere, amaf adirazitzeko *bi esku* esaten omen dute. Amafekoa efi askotan sortu zan; berau da oituenena. Oñafitzat bi eskuetako beatzak artuta sortu zan noski, Ovidio'k idatzi zuan bezela:

*sed quia tot digiti per quos numerare solemus
hic numerus magno tunc in honore fuit.*

Ogeikoa oraindikan efi askotan erabiltzen da. Mexico'ko mayafak eta Japon'go aindafak aspaldi sortu ta erabili zuten; eta zenbakera onen aztarnak beste efi askotan ere agiri dira, keltaf ta dinamar-kafen izkuntzetan eta.

Euskaldunen zenbakera ere geyenez ogeikoa da.

3. Esandako zenbakera oyetan maizenik erabili oi diran mafak bitzuek dira: efomafenak eta arabitafenak. Lenengoak, zenbaki

guziak azaltzeko, zazpi izki abek baizik ez zituzten: *I, V, X, L, C, D, M*.

Arabitañak Europa'ra ekañitako amar zenbaki-mañak abek dira; 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 0. Abexek erabiltzen dira maizen; eñomañenak, noizpeinka, zenbakañenak adirazitzeko baizik bestetan ez.

4. Onezkero, gure zenbakerara yo beañ degu. Ona emen, euskerazko zenbaki-itzak:

- 1 bat
- 2 bi, biga, bida, bir
- 3 iru, iror, hirur, hiru
- 4 lau, laur
- 5 bost, bortz
- 6 sei, xei
- 7 zazpi, zaspi, saspi
- 8 zortzi
- 9 bederatzi, bederetzi, beretzi, bederatzü
- 10 amar, hamar
- 11 amaika, amaka, ameka, hamaka, hameka
- 12 amabi, hamabi
- 13 amairu, amiru, amiror, hamairur, hamahirur
- 14 amalau, hamalaur
- 15 amabost, hamabortz, hamabost
- 16 amasei, amaxei, hamasei
- 17 amazazpi, hamazazpi
- 18 amazortzi, emezortzi, hamazortzi, hemezortzi
- 19 emeretzi, hemeretzi, hemeretzü, hameretzi
- 20 ogei, ogoi, hogei, hogoi
- 40 befogei, beñogoi, ...
- 60 irurogei, hirur hogoi, hiruetan ogoi ...
- 80 larogei, laurogei, lauetan hogoi ...
- 100 eun, egun, ehun, ein, bostogei

5. Oañak:

- 1.^a Gipuzkeraz ta bizkayeraz lenengo itzak dira oituenak.
- 2.^a **Bost** eta **amaika** *asko* adirazitzeko ere erabiltzen dira.
- 3.^a **Ogei**, **befogei**, **irurogei** ta **larogei** itzetan argi agiri da euskerazko zenbakera ogeikoa dana. **Bostogei**-ordez, baña, *eun* esaten da; eta ofezkero ogeiko erak ez du yañaitzen.
- 4.^a **Biga**, bakarik dagola erabiltzen da: *Bi gizon etofi dire. Zenbat gizon etofi dire? Biga etofi dire.*

6. Ogeiko batetik besterañoko zenbakiak onela beresaten dira:

21 ogei ta bat, ogetabat, hogoi ta bat ...

22 ogei ta bi, ogetabi ...

23 ogei ta iru, ogetairu

24 ogei ta lau, ogetalau

25 ogei ta bost, ogetabost

26 ogei ta sei, ogetasei

27 ogei ta zazpi, ogetazazpi

28 ogei ta zortzi, ogetazortzi

29 ogei ta bederatzi, ogetabederatzi

30 ogei ta amar, ogetamar

31 ogei ta amaika, ogetamaika

32 ogei ta amabi, ogetamabi

33 ogei ta amairu, ogetamairu

34 ogei ta amalau, ogetamalau

35 ogei ta amabost, ogetamabost

36 ogei ta amasei, ogetamasei

37 ogei ta amazazpi, ogetamazazpi

38 ogei ta amazortzi, ogetamazortzi

39 ogei ta emeretzi, ogetemeretzi

Ogetabat, ogetabi, t. a., Bizkayan erabiltzen dira geyen

Beste ogei-tartetakoak ere esandakoen antzera:

41 befogei ta bat, befogetabat

50 befogei ta amar, befogetamar

51 befogei ta amaika, befogetamaika

62 irurogei ta bi, irurogetabi

70 irurogei ta amar, irurogetamar

90 larogei ta amar, larogetamar

99 larogei ta emeretzi, larogetameretzi

7. Ona emen eunekoak:

100 eun, egun ...

200 befeun, befehun ...

300 irureun, irurehun ...

400 laureun, lareun, lauretan ehun

500 bosteun,

600 seireun

700 zazpireun

800 zortzireun

900 bederatzireun

8. Oafak:

1.^a Lenago, 6'g. atalean, aitatu dan **bostogei** itza, Azkue yaunak dionez, bakan bakana da.

2.^a Sortaldeko euskaldunak irureunezkeroz beste eunekoak onela esan oi dituzte:

400 lauretan ehun

500 bortzetan ehun

700 zazpitan ehun, et. a.

3.^a Bederatzireunetik gora ere sortaldetafak beste euneko batzuek noizpeinka erabiltzen dituzte: amafeun, hamekareun, et. a.

9. Maizen erabiltzen diran beste zenbaki aundiak:

1.000 mila, mila, milia, mil, amafeun, anei

1.000.000 miloe, miloi, miliu, unei

1.000.000.000 mila miloe, miliar bat

Mila'tik miloi'ra zenbaki guziak befasaten dira.

Anei ta **unei** itzak ez dira zafak, orain ogetamafenbat urte sortuak baizik; idaztietan efuz erabili dira, ordea.

10. Oafgañiak dira sortaldeko zenbaki-esakun abek:

bizpairu (bi edo iru)

bizpalau (bi edo lau)

lazpabost (lau edo bost)

lazpazortzi (lau edo zortzi)

bospasei (bost edo sei)

Lenbizikoa, batez ere, efuz erabiltzen dute.

11. Zenbakañenak.

Beste zenbaki-itza **gañen** (zubereraz **geñen**) atzizkia geiturikan eratzen dira: bigañen, seigañen; edo, bigeñen, seigeñen.

Lenengo, **lenbiziko**, **lelengo**, **lehen** erabiltzen dira **batgañen**-ordez; beste zenbakiari lotuta dagoala, bai, **gañen** atzizkia erantzten zayo: ogetabakañen.

Irugañen-ordez ere inoiz **heren** erabili bide da, **herenegun** itzak erakusten digunez.

Azkenengo, **azken**, **azten** itzak ere gañen atzizki-gabe oitzen dira.

12. Zenbanakoak. Abek, *na* ta *ra* atzizkietaz antolatzen dira:

bana, bedera

biña, bira

iruna, hirurna

launa, laurna

bosna, bortzna
seina, seira
zazpiña, zazpira
zortziña, zortzira
bederatziña, bederatzira
amarna, hamarna
ogeina, hogoirra

13. Zenbakiak idatziz.

Antxiñako euskaldunak, zenbakiak idatziz azaltzeko, zelako maña edo ikurak erabiltzen zituzten ez dakigu. Orain, beriz, pelotarien esku-aldiak eta ekintza batzuetan saltzen diran zofoak-edo oroitarazitzeke (1) izan ezik, euskeraz ere, beste izkuntza geyenetan bezela, zenbakiak idazteko arabitarfen zenbaki-mañak erabiltzen ditugu; eta **amañeraz** erabili ere, ez **ogeyeraz**, zenbakiak oguzi edo esatean bezela. Alegia: 30 idatzi, ta *ogei ta amar* esan; 52.095 idatzi, ta *berogei ta amabi mila ta larogei ta amabost* esan.

Zenbakarenak idazteko, arabitar mañak *gañen* (g.) atzizkia erantsirik, edo ta, efomaren izkiak, oitzen dira: 3'g. *eguna*; III *eguna*.

Oartu: zenbakarenak beti aurretik yañi oi dira; beste zenbakietatik, ordea, *bat* beti atzetik eta *bi* naiz aurretik naiz atzetik.

II

Idazlien usteak

ASTARLOA (1803)

14. Astarloa'k, euskera lenengo izkuntza zalako bere ustea egiztatzeke, zenbaki-izenak ere aztertu zituan; eta berak dionez euskerazko zenbakien itzorkunak abek dira:

1 - Bat. B-a-t; b = *bekoa*, a = *edatua*, t = *iraunkofa*. Antxiñan, bat adirazitzeko, lufean (*beko*) maña (*luzea* ta *iraunkofa*) egiten bide zuten.

(1) Ikazkiñak, ikazkin-taya deritzan egurtxoan gurutzetxo, koska, ebaki ta zuloxoak egiten dituzte. Gurutze aunditxoak eun karga ikatz adirazitzen dute, gurutze txikiak amar karga, koskak karga bana. ebakiak karga-erdi edo zorokada (zakukada) bana ta zuloak zoro-erdiña.

- 2 - Bi. B-i: i = *bata*, ta oneri *b* izkia geituezkero, oía *bi* gauza.
- 3 - Iru. -I-r-u: iru izki jafirik *iru* adirazi.
- 4 - Lau. Lau gauza ikurtzeko, lau maía elkaí-loturikan egindako *laukia* egiten bide zan; eta laukitik *lau* lenengo zatia geratu zenbaki onen izentzat.
- 5 - Bost, bortz. B-ortz: b = *beko* ta *ortz*. Zenbaki au adirazitzeko, goiko une batetik beranzko bost ortz edo maía egiten bide ziran.
- 6 - Sei. Se-i = ze-i; edo, bata xetuta, askotuta.
- 7 - Zaspi. Bere itzorkuna: i (bateko) asko.
- 8 - Zortzi. Itzorkuna: i (bateko) -sorta, píla.
- 9 - Bederatzi. Azkenengo *i* edo batekoak.
- 10 - Amar. Amaíatzetik (!): bi eskuetako beatzak amaíatu edo alkaítuta adirazten zutelako. Lateraz erabiltzen zan X izkiak ere bi eskuak ikurtzen ditu.
- 11 - Amaika. Amar-ika = amar-bat. Ika = i-ka: i = *bat*, k = *egikuntza*; *bat-ka* zenbatzea. Beste itzorkuna: i-ka, i = *maía*, ka = *gauza*, edo maíazko gauza.
- 20 - Ogei. O = *goya*, gei = *geyago*: goyena, edo, gorabiderik aundiena.
- 100 - Euskaldunak antxiñan zenbaki au *bostogei* esaten zutela uste izan genezake; baña, gaurko *eun* itza ere egokia da, euna edo oyala (arizko eunak baño lenago armiarma-eunak nabaitu zituzten noski) eun lako zenbaki aundia ikurtzeko egokia zan, ari askoz eginda dagolako.

EÍO (1815)

15. Onen ustez euskerazko zenbaki-izenak Yainkoak egindako izakien izenak dira.

1 - Bat. B-at = b-ata (aita, sorburua). Yainkoaren izena, izaki guzien Aita dalako.

2 - Bi. B-i = lefoa, luzera. Luzera omen da Yainkoak egindako lenengo izakia.

3 - Iru. I-r-u = lefo-igikun-ugari. Igikuna, Yaunak irazandako irugafen gauza (!).

4 - Lau. La = *bakuntza*, u = *ugari*: gaya, izakaya, geroko izaki guzien gaya.

5 - Bost. B-ost = azkena, elburua: Yainkoak egindako laugafen gauza (?).

6 - Sei. Sei = *era*, *tankera*. Izakaya eraturikan izaki bakoitza sortu zan.

7 - Zazpi. Z-azpi = sakontasuna, *azpiranzko* indara.

8 - Zorzi. Z-or-zi = goiatasuna, goranzko indara. Or = *goya*, zi = *leñoa*.

9 - Bederazi. B-eder-azi = edertasun-azia = edertasunaren sorburua.

10 - Amar. Ama-ar = ama, ugaritasuna.

20 - Ogei. O-gei = goi-geya, edo ura.

100 - Eui. E-un: e = *leuna*, un = *unea*, tokia.

1000 - Miña. M-ña: ña edo gauzik eza.

ABBÉ J. ESPAGNOLLE (1900)

16. Onen ustez euskerazko zenbaki-izenak gerkerazkoen seni-deak dira; oréngatik, elkar-antz aundia dutela egiztatu nai du.

1 - Bat. Gerkerazko *hes* (bat) aldatuta: *h'tik b*, *e'tik a*, *s'tik t* egiñik.

2 - Bi. Gerkerazko *dis* (bi): *d'tik b* egin, eta *s* kenduta.

3 - Irur. Gerkerazko *hiros* (donea) *arithmos* (zenbakia).

4 - Laur. Gerkerazko *nar* (lau), *n'tik l* eginda.

5 - Bost. Gerkerazko *post-os* itzetik.

6 - Sei. Gerkerazko *hex* (sei).

7 - Zazpi. Gerkerazko *asti* (zazpi).

8 - Zortzi. Doritafen *orso* itzetik.

9 - Bederatzi. Gerkeraz: *bis* (bi), *pétaras* (lau) ta *has* (bat). bitar, lau, ta bat.

10 - Amar. Gerkerazko *hamas* (pila, samalda).

11 - Ameka. Amar-eka (bat).

19 - Ameretzi. Amar-bederatzi.

20 - Gerkerazko *éoika* (antzekoa): amaikatik ogeira batetik amafera aña dagolako, ogei amafen antzekoa dala adirazitzeko.

100 - Gerkerazko *hekatyn* (*ekatón*) itzetik *ehun*.

IRIZAR.—CHARENCEY.—GAVEL

17. Lenengoaren ustez laterazko zenbaki-itz geyenak euskerazkoetatik sortu dira, zela sortu diran ez du erakusten, baña; Efo'ren itzorkunak ontzat afitzen ditu.

18. Charencey'k, euskerak beste ele askorekiko senidetasuna daula uste; baña zenbaki-itzetan ez du alako elkar-antz aundirik erakusten: kanadatafen *rau* ta gure *lau* antzekoak dirala, bederatzi amafetik bat kenduta eratu zala euskeraz ere kanaderaz ta ugroaltaikar izkelgi batzuetan bezela ...

19. Gavel yaunak uste duanez, *hirur* itzeko *ur* zatia atzizkia besterik ez dala esan daiteke, ta beraz antxiñako zenbaki-izena *ir* bakafik; eta au, *heren*'eko *er* zatiaren laguna edo. **Bederatzi**, beñiz, amafi *bedera* (bata) kenduta sortu bide da. Zenbakañenen azkenengo zatia, gizonen, lagun~~en~~ eta beste olako itzai eransten zayen *en* atzizkia beraxe dala uste du. Atzizki au lenago, *aundiena*, *lodi~~ena~~* ta beste olakoetan erabili zan noski, ta oyen antzera zenbakañenak adirazitzeke ere; *gañ*, *ger* tartizkiak yañita, baña.

ARANA-GOIRI (1901)

20. Arana-Goiri'k «Análisis y reformas de la numeración euzkérica» idaztian euskerazko zenbakera zearo aztertu zuan. Idazti orek bost atal ditu: lenbizikoan, zenbakera eñiak zela erabiltzen duan erakusten du; bigañenean, zenbaki-itxorkunak bere ustez zeintzuk diran; irugañenean, euskerazko zenbakerak dituan akatsak dakazki; laugañenean eta boskañenean, akats oyek kentzeko bi bideak azaltzen ditu.

Lenengoa ez beste atalak laburki aitatuko ditugu.

21. Itxorkunak:

1 - Bat. *Eri* (beatza)'tik: *eri* = *beri* = *bedi* = *bede* = *bet* = *bat*.

1 - Eka, ika. *Egi* (beatza, eñoa)'tik: *egi* = *ege* = *ega* = *eka* = *ika*.

2 - Bi, biga, bida. *Bi-egi* = *bi-ige* = *biga* = *bi*. *Bi-egi*, beñiz, *igi-kun-beatza* esatea bezela da, edo *beatz (egi)* igikoña ta *bizkoña*: erpurua, beatzaundia. Antxin-antxiñako gizonak *bat* adirazitzeke, erakustatza (index) luzatzen bide zuan, eta *bi* adirazitzeke, *beatz* oferi beste beatza, beatzaundia, elkaftu; eta ortik bigafen zenbakiari *beatz* aundi ofen izena, *bi-egi*, ezafi. **Bida**'ren itxorkuna: *bi-eri* = *bi-ire* = *bide* = *bida* = *bi*. *Eri*, len esan danez, beatza da.

3 - Iru, hirur. *Il-egi (Urtzi-zenbakia)* = *ir-egu* = *ir-eu* = *iru* = *irur*. *Egi*, lenago beatza ikurtzeko bezela, geroago zenbakia ikurtzeko ere erabili edo zan. Beste ele batzutan bezela, antxiñean euskeraz ere *Il*, *El*, Urtziren izena bide zan. Eranegun itzean ere *er* iru ikurtzeko degu.

4 - Lau, laur. L-egi (*lotura-beatzak*) = legu = leu = lau = laur. Lenengo izkia, l, lotura-ikufaz itz zaŕetan degu. Lau adirazitzeko, ordea, esku bateko lau beatz lotuak erakustea bidezkoa zan.

5 - Bost, bortz. Egi-oro-tz (*eskuko beatz guziak*) = egi-or-tz = egu-ortz = euortz = ebortz = bortz = bost.

6 = Sei. Oso-eri (osoa ta beatza, *esku osoa ta beatz bat*) = os-eri = osei = sei.

7 - Saspi, zazpi. Os-eri-bi (*esku osoa ta beatz bi*) = os-er-bi = sarbi = saspi. Itxorkun au egizkoa izatekidan, orain maizenik *zazpi* oguzten dana lenago *saspi* esaten zala aitortu bearko genuke.

8 - Zortzi. Zof-etzi (*lodiak utzi, beatz lodiak utzita beste beatz guziak*) = zortzi.

9 - Bederatzi. Bede-etzi (*bat utzi*) = hederetzi = bederatzi.

10 - Amaŕ. An-eri (*andi zenbakia*) = aner = amar. An anditasuna edo goitasuna ikurtzen gan eta andi itzetan degu.

11 - Amaika. Amar-eka (*amar ta bat*). Eka len aitatu da.

19 - Ameretzi. Amar-bederetzi = amaberetzi, ameretzi = emeretzi.

20 - Ogei, hogoi. Egi-di (*esku ta oñetako egi edo beatz guziak*) = ige-di = ugei = ogei. Egi-di = igudi = ugodi = ogoi = hogoi.

100 - Eun, ehun. Egi-un (*zenbaki-muga*) = egu-un = eun.

22. Itxorkun abek dirala-ta, Arana-Goiri'k sumatutako ondorea. Antxiñean euskeraz bi zenbakera erabili bide ziran, bata **bostekoa** (*epi-zenbakera*) ta bestea **amaŕekoa** (*eri-zenbakera*); biok, geroago, elkarŕu ta nastu egin ziran eta oraingo **ogeiko** zenbakera sortu. Amaŕekoari zor zayo orain amaŕetik ogeira zenbakiak beŕesatea (amaika, amabi ...), ta bostekoari bostogei-ordez **eun** esatea.

23. Akatsak:

1.^a Mila, miŕoe, biŕoe... erderatiko itzak erabili beaŕ izatea.

2.^a Bost ogeik **eun** egitea; eta beraz, **seirogei**, **bederatzirogei**, t. a., ez esatea.

3.^a Zenbakera itzez ta idatziz guztiz elkarŕu-gabe erabiltzea. Au da akats edo okelk aundien: zenbakiak **ogeyeraz** esan eta **amaŕeraz** idatzi egitetik naste aundia sortzen da-ta. Bai ha: 30 idatzita ikusiezkeru, *iru* itza dator ezpañetara, ta *ogei ta amar* esan beaŕ, ordea; 51 ikusteak *bost-bat* itzak erakafi, ta *beŕogei ta amaika* esan beaŕ; 79 ikusiaŕen, *irurogei ta emeretzi* esan, eta abaf.

24. Irugafen akatsetik dator zenbakiztia euskeraz irakasteko ta ikasteko nabaitu oi dan sailtasuna. Zenbakiztia eŕezago ikastan dute umeak zenbakiak erderaz esanik, naiz ta berak erderarik yakin ez, euskeraz esanik baño.

25. Akatsak kentzeko bideak.

Erderazko itzen ordeaz, euskera uttezko itz beñiak sortu zituan Arana Goiri'k, zuztefaitzat *egi*, *eri* = *ei* arturikan: *anei*, *unei*, *onei*, *zidi*, t. a.

Bitara zuzendu daiteke bigaŕen okefa: edo, ogei-ordez **amar** bigaŕen malean yaŕirik, edo, **bostogei**, **seirogei**, **saspirogei**, **zortzirogei**, **bederatzirogei** ta **eun** esanik, **eun** itzak oraingo **lareun** ikurtzen duala.

Irugaŕen akatsa ayenatzeko, ere, bi bide ditugu: zenbakiak **ogeyeraz** idatzi, ala zenbakiak **amaŕeraz** oguzi.

26. *Ogeikun-arauzko zenbaki-idazkera*. Lenengo emeretzi zenbakiak ikur edo maŕa bana bear dute, onela edo: 1, 2, 3, 4, V, 6, 7, 8, 9, X, $\frac{1}{X}$, $\frac{2}{X}$, $\frac{3}{X}$, $\frac{4}{X}$, $\frac{5}{X}$, $\frac{6}{X}$, $\frac{7}{X}$, $\frac{8}{X}$, $\frac{9}{X}$, ta 0.

Emeretzi zenbaki aben tokia eskubiko lenengoa da; bigaŕen tokian ogeikoak ipiñi bear dira, emeretzi ogei egin arte; ogei bider ogeiri *eun* izena ezaŕi, ta emeretzi euneko aben tokia irugaŕena izango da; ogei eunekori *anei* izena, ta laugaŕen tokia; ogei aneiri *anbei* izena; ogei anbeiri *anirei* izena, ta abar.

27. Ona emen, ogeyerazko amairu maŕa-izenak:

1. ^a	bat	1	bat	<i>bat</i>
2. ^a	ogei	10	ogei	<i>ogei</i>
3. ^a	eun	100	ogei × ogei	<i>lareun</i>
4. ^a	anei	1.000	ogei eun	<i>zortzi mila</i>
5. ^a	anbei	10.000	ogei anei	<i>160 mila</i>
6. ^a	anirei	100.000	ogei anbei	<i>3.200.000</i>
7. ^a	unei	1.000.000	ogei anirei	<i>64 miloi</i>
8. ^a	unbei	10.000.000	ogei unei	<i>1.280 miloi</i>
9. ^a	unirei	100.000.000	ogei unbei	<i>25.600 miloi</i>
10. ^a	onei	1.000.000.000	ogei unirei	
11. ^a	onbei	10.000.000.000	ogei onei	
12. ^a	onirei	100.000.000.000	ogei onbei	
13. ^a	eidi	1.000.000.000.000	ogei onirei	

Adibidez: ogeyeraz zela idatzi 1928? Onela: $4 \frac{6}{X} 8 = \text{lau eun}$ (*eun* = 400), *amasei ogei ta zortzi* (1).

(1) Yakingafia da-ta emen aitatu beaŕ det 1896'g. urtea, orain dirala 32 urte, ogeyeraz idatzita dagon gomutaria. Lekeitio'tik Mendexa'ra bide-ondoko basatxaunoan dago gomutari ori; eta onela dio: Zafasunagafik erotuta ta jausiriko = Basatxauno au = Algoŕta'taf Kauldi = Bizkai,ko Lekeitio-Semiak = Azpiŕtik beŕiragi bere alegiñaz

28. *Amarkun-arauzko zenbaki-oguzkera.* Orain erabiltzen degun amaferazko idazkera ontzat ařtuta, zenbaki-oguzkera idazkera ořeri egokitu litzakioke, onela:

1	bat	100	eun	
10	amař	200	befeun	
20	beřamař	900	bederatzireun	
30	iruramař	1.000	anei	<i>mila</i>
40	laramař	3.000	iruranei	
50	bostamař	8.000	zortziranei	
60	seiramař	10.000	anbei	<i>amař mila</i>
70	saspiramař	50.000	bostanbei	
80	zortziramař	100.000	anirei	<i>eun mila</i>
90	bederatziramař	900.000	bederatziranirei	
	1.000.000		unei	<i>miloe bat</i>
	10.000.000		unbei	<i>amař miloe</i>
	100.000.000		unirei	<i>eun miloe</i>
	1.000.000.000		onei	<i>mila miloe</i>
	10.000.000.000		onbei	<i>10 mila miloe</i>
	100.000.000.000		onirei	<i>eun mila miloe</i>
	1.000.000.000.000		eidi	<i>biloe bat</i>

Adibidez: 1.234.123.456.789 = eidi; beřonirei, iruronbei, laronei; unirei, beřunbirei, irurune; laranirei, bostanbei seiranei; saspireun, zortziramař ta bederatz.

III

Espena

29. *Astarloa'renazko aburua.* Astarloa'k dakazkin itxorkunak, amaikatzařzkoa kenduzkero, ez dute egi-antz aundirik: *lauki lau'tik* etortzea bidazkoago da, *lau lauki'tik* bařo; *amařatu* itza ere euskerazkotzat ezin ditekete ařtu.

eragin dau = Jaungua'ren Ama Andijaren = Eta D-Luke N. eta D-Kistopor Ziřopaen = ixen eta aintzarako = Iruron zaimen indar-tsupian = Bere buru ta sendija imiřirik = Paben, Paskal, Gotzone, Sope, ta Nekane = Eragiliaren Seme-alabeak = Euren ařa mařemařiak 4^{XX}₄₆ G. urtian asitako egipen au = Zorunez urte bigařenan = Amařu dabe.

A. ETA G.'TAR.S.

30. **Efo'renazko aburua.** Onen itxorkunak amesak baizik ez dira; eta *mila* ere euskerazkoa dala esatea geyegitxo da.

31. **Espagnolle'renazko aburua.** Euskera ta gerkeraz zenbakeraz senideak diranik ez da agiri: geyegi aldatu bear izan ditu zenbaki-izenak, naiz euskerazkoak naiz gerkerazkoak. **Ameka** ta **emeretziren** itxorkunak zuzen dakazki; eta *bi* ta *irur* itzetan bi ele abek elkaf-senidetasuna izan dezakete.

32. **Irizar; Charencey; Gavel.** Irizaf'ek Efo'ren itxorkunak ontzat artzen dituanekero, bere usteai ezin gafantzi aundirik eman.

Charencey'k dionak ere, bederatzi zenbakiazkoa kenduezkero, ez du axolik.

Gavel'ek *hirur* zenbakiatzaz ta zenbakafenen *en* azken-atalatzaz dionak egi-antz aundia du; **bederatzi** itzean, ordea, *bat* ikurtzen duan atala *bede* dala, *bedera*-gabe, ezezago siñetsi ditekete.

33. **Arana-Goiri'renazko aburua.** **Itxorkunak.** Abetan bere adi-men zolia, sokun aundikoa, erakutsi zuan. Itxorkunak, ordea, egizkoak ote? Geyenak beintzat egi-antz aundia duten-afen, egizkoak diranik ez nuke esango; gaya zail-zaila bai-da, ta egi utsa arkitzen gaitz. Ortarako, aitatzen dituan aldakuntzak gertatu diranetz yakin bear; eta ori yakiteko nai ta naiezkoak diran antxiñako euskeraren aztafenik ez degu, zoritxañez. Aztafenok iñoiz agertuko al dira!

34. **Akatsak.** Iru akats oyek ezin ditezke ukatu. Irugañenetik, batez ere, ondore kaltegañiak datozkio gure euskerari. Bera dala bide, zenbaki-gayetan euskerak arin bai-arin atzera dagi: erderazko zenbakera askoz ezezago zayelako, ikastetxetako umeak ez ezik euskaldun uts diran beste askok ere zenbakiak erderaz aitatu oi dituzte. *Treintaisinko*'ko zera, *nobentaikuarto*'ko gertaera, ta beste olako esaerak nun-nai ta noiz-nai entzuten dira.

35. **Akatsak kentzeko bideak.** **Mila, miloe**, t. a., erderatiko itzak izanagaitik, baztertuta uztea askori ez zaye atsegin izango. Guztiz baztertu-gabe, yakintza ta crti-gayetan-eta erabiltzeko beñiak ere ontzat artzea ez ote litzake obe izango? *Anei, unei, onei* ta *eid*: beintzat.

Irugañen akatsa kentzeko lenengo bidea, *ogeyerazko zenbaki-idazkera*, ez da egokia, ezta ezeza ere; bigafena, ordea, *amaferazko zenbaki-oguzkera*, egoki-egokia da; taña, mala-izenak gutxituezkero ezezagoa litzake. Ortarako, anetik gora mala-izen berezirik ez litzake ipiñi bear iru malatik iru malara baizik; onela, biloetara iristeko lau itz beñi naiko lirake:

<i>anei</i>	<i>miła</i>
amar anei	amar miła
eun anei	eun miła
<i>unei</i>	miłoe bat
amar unei	amar miłoe
eun unei	eun miłoe
<i>onei</i>	miła miłoe, miliar bat
amar onci	amar miła miłoe
eun onei	eun miła miłoe
<i>edi</i>	biłoe bat
amar edi	amar biłoe
eun edi	eun biłoe

36. Azkenez, beste lau mała-itz beñi eratuezkero, kuatriłoetara iritxiko gera, onela:

<i>aneidi</i>	miła biłoe
amar aneidi	amar miła biłoe
eun aneidi	eun miła biłoe
<i>uneidi</i>	triłoe bat
amar uneidi	amar triłoe
eun uneidi	eun triłoe
<i>oneidi</i>	miła triłoe
amar oneidi	amar miła triłoe
eun oneidi	eun miła triłoe
<i>edeidi</i>	kuatriłoe bat
amar edeidi	amar kuatriłoe
eun edeidi	eun kuatriłoe

Adibidez: 987,654.321.987.654,321.987.654.321 =

betzeun, zortzamar	ta zazpi <i>edeidi</i> ;
seireun, bostamar	ta lau <i>oneidi</i> ;
ireun, beñamar	ta bat <i>uneidi</i>
betzeun, zortzamar	ta zazpi <i>aneidi</i> ;
seireun, bostamar	ta lau <i>edi</i> ;
ireun, beñamar	ta bat <i>onei</i> ;
betzeun, zortzamar	ta zazpi <i>unei</i> ;
seireun, bostamar	ta lau <i>anei</i> ;
ireun, beñamar	ta bat

GEIKIA

Idazti-aipa

Eléments de Grammaire Basque. *Louis Geze.*
Grammaire Basque. *Fl. Lécluse.*
Aritmética de casi todas las naciones conocidas. *Hervás.*
Grammaire Basque. *Ithurri.*
The origin and development of number system. *Crawley.*
Essai sur la Langue Basque. *Ribary.*
Le Peuple Basque. *Inchauspe.*
Grammaire des Dialectes Basques. *Van Eys.*
El mundo primitivo. *Erro.*
De la Parenté du Basque avec divers Idiomes. *Charencey.*
L'Origine des Basques. *Espagnolle.*
De l'Eusquera et de ses erderes. *Yrizar y Moya.*
Apología de la Lengua Bascongada. *Astarloa.*
Discursos Filosóficos sobre la Lengua Primitiva. *Id.*
Grammaire Pratique (Gure Herria). *H. Gavel.*
Gramática. *Campión.*
Morfología. *Azkue.*
Eusko-Bilkindegi. *Agíre.*

ZABALA-ARANA'taí Joseba

Miren-Biotz-Semia





